

**Eiderrren**

**egunerokoa**

**Jasone Osoro Igartua**

**Argitaletzeko koordinatzailea**  
Aurelio Erdozain

**Egilea**  
Jasone Osoro Igartua

**Azala eta marrazkiak**  
Alai Zubimendi Idarreta

**Bildumaren diseinua eta maketazioa**  
Luis Alonso

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© Testua: Jasone Osoro Igartua  
© Marrazkiak: Alai Zubimendi  
© Go!zen: EITB  
@ Alai argitaletxea S.L., 2019

 eitb

 pausoka

ALAI ARGITALETXEA, SL  
alai@alai.eus  
**www.alai.eus**  
ISBN: 978-84-120944-1-1  
Lege-gordailua: SS 1248-2019  
EBn inprimatua - Printed in EU.



# Eiderrren egunerokoa

Jasone Osoro Igartua

#2

Marrazkiak: Alai Zubimendi Idarreta



# Eiderrren egunkaria

Urtarrilak 9

*Aiiiiiiii!!! Uste dut enamoratuta nagoela!!! Bada-  
kit mundu guztiak egunkariak idazten dituela ber-  
tan penak kontatzeko, maiteminak eta hori guztia;  
ba, nik ez. Nik zeinen zoriontsua naizen azaldu  
nahi dut! Oso oso oso zoriontsua naiz. Bale, bale...  
Oraindik ez da ezer gertatu. Danelek ere, lehengu-  
suak, behin eta berriz errepikatzen dit ez emoziona-  
tzeko. Begirada batek ez duela ezer esan nahi. Hori  
ipuin txotxoloetan bakarrik gertatzen dela, salbatuko  
zaituen printze urdinarena eta kaka hori guztia. Tun-  
tuna naizela uste al du horrek? Nik ez dut inor behar  
pozik bizitzeko, baina batzuetan hain da polita bes-  
te baten begiradan gustuko zaituela ikustea. Ez dut  
uste horren kontra inor egongo denik, ezta? Ezin al  
naiz feminista izan, eta berdintasunaren alde borro-  
katu eta, halere, gustuko dudan pertsona horrekin  
egotea desiratu?*

*Gaur izan da. Begiradarena, diot. Ziur naiz niri  
begira harrapatu dudala. Plazan geunden. Ni berri-  
ketan, nola ez, nire tontakeriekin. Edateko jogurta*



*amaitu dudanean, zakarrontzira gerturatu naiz, eta hantxe zegoen bera. Hain eder! Lagunen artean irribarrez, beti bezain isil eta umil. Potoa erori zait, eta jasotzean sumatu ditut haren begiak nigan. Danelek ere esan dit ikusi duela. Mozolo halakoak ipurdira begiratu didala esan dit. Nik ere begiratu izan diot ipurdia. Eta zer du horrek txarrik, ba? Agian, neuk esan beharko nioke zerbait. Ez dakit. Haren telefono zenbakia lortu eta mezuren bat bidali... Instagramen jarraitzen dut. Like bat jartzen badiot, ohartuko da atsegin dudala. Bua, pentsatze hutsak urduri jartzen nau. Gero Daneli deituko diot, eta bion artean aukeratuko dugu instagrameko argazki bat. Nireak ikusiko al ditu berak? Gustatuko al zaizkio? Eskalatzailea da bera. Oso argazki txuloak zintzilikatzen ditu. Oso naturalak, poserik gabekoak. Nireak, berriz, dantzarekin lotuta daude gehienak. Eta kontzertuekin. Beti parrandaren bat tartean. Ai ene... Seguru bera super kirolaria dela eta nire stor-yak ikusten dituenean ero hutsa naizela pentsatuko duela. Ba! Niri bost! Naizen bezala ezagutu behar nau, zer arraio!*

*Daneli watxapa bidaliko diot gaua hemen pasatze-ko esanez. Tira, amari galdetuko diot aurretik...*



Urtarrilak 11

*Flipatuta nago. Gauza asko pasatu dira azkenekoz idatzi nuenetik. Azkenean Danel etorri zen, eta Ikerren sare sozialak arakatu genituen. Iker deitzen da, bai. Total, eskalada, eskalada, eskalada... Aspergarri samarra, egia esan. Politak baina aspergarriak. Pentsa zeinen gogaikarria zen haren albuma ordubete lehenago berekiko nuen irrika ia-ia desagertu zela. Une batez berarekin harreman bat nuela imajinatu nuen. Egun osoa mendian gora eta behera! Benetan nahi al duzu hori zuretzat, Eider? Serio ari naiz. Ez dakit oso bateragarriak garen. Bera egun santu osoa haitzetatik zintzilik. Eta ni oinak airean, dantzan. Danelek barre egiten du, eta adarra jotzen dit esanaz koreografiak asma ditzakedala Iker horman gora doala nik eusten diodan bitartean. Kontua da iji eta aja Danel zirikatzen hasi zitzaidala, koldarra nintzela esanaz, eskaladarena aitzakia hutsa zela, beldur niola Ikerrek gustuko ez ninduela jakiteari... Eta martingala horretan erori nintzen. Ziplo. Ezetz? Ez naizela ausarta? Beldurra nik? Gustuko ez banau, bakea niretzat! Munduan pertsona bakarra al da Iker hori? Halaxe, oldartuta sakatu nion botoiari. Ikerren dozena bat argazkiri atsegin dut*





jarri nien. Ez dakit nire aurpegiak zer adierazten zuen baina erraiak orroka nituen.

Jendeak esaten du sabelean tximeletak sentitzen direla maitemintzen zarenean, ba, nik lehoiak eta tigreak eta errinozeroak nituen neure erraietan hortzak estuturik. Damurik ez neukan, baina ikaragarriko lotsa sentitzen nuen. Gainera, Ikerrek ez ezik, beste ehunka pertsonak ere ikusiko zituzten nik emandako like-ak, eta hori publikoki gustuko nuela esatea moduko zerbait zen. Iragarki bat jartzea. Munduari adieraztea Iker gustatzen zitzaidala. Sukaldera joan nintzen, hozkailua ireki eta esnea atera nuen. Danel oihuka hasi zen, eta edalontzia eskue-tatik erori zitzaidan. Krask! Beira pusketak zoruan. Esne-putzua dena estaltzen. Ama berehala agertu zen. Zer gertatu da? Hau iskanbila! Oraindik esna al zaudete? Zoazte ohera lehenbailehen! Danelek nola edo hala azaldu zuen amesgaiztoa izan zuela, ma eta ma aritu zen, gezurretako amets hura asmatzen, nire ama lasaitzeko asmoz. Ama logelara itzuli zen, aurretik dena jaso eta garbitzeko eskatuz. Azken beira pusketak jaso nuenean bota zidan Danelek albistea: Ikerrek zure argazki bati bihotza jarri dio. Zeeer???



Ba, horixe bera. Ikerrek nik botatako hordagoa jaso du. Zer pentsatu behar dut? Berak ere gustuko nauela? Jolas hutsa al da? Ondo geratzeko modua? Egia esan, bizpahiru aldiz ikusi dut hura gertatu zenetik, baina ez dit begiratu ere egiten.

Urtarrilak 15

Atzo ile apaindegian egon nintzen. Berria ireki dute, oso modernoa. Sidney deitzen da, Australiako hiriburu bezala, eta bi mutil daude lanean. Jatorrak dira, baina nahi dutena egiten dizute. Puntak mozteko eskatzen badiezu ere, ile apaindegitik edozein itxurarekin ateratzeko arriskua duzu: ertzak soilduak, tupearekin, urdinez tindatua... Baina, era berean, horrek egiten ditu berezi, ze, egiari zor, beti asmatzen dute. Ezagutzen dudan jende guztia atera da pozik ile apaindegitik. Ezberdin, baina pozik. Eta nik ere itxura aldatzeko gogoia neukan, horregatik joan nintzen. Onena ilea garbitzeko momentua, masaje eta guzti! Ia loak hartu ninduen, pentsa! Gero, ispilu aurrean jarri ninduten, eta bost bat minutuz egon zen Peru, hala deitzen da niri moztu zidana, nire aurpegia eta ilea aztertzen.